

# B

BARREN

TOKIKOM

## Leonard Komon, hirugarrenaren bila

# ikastaroak + fitness

**Eskaintza!!!**

Urte guztiko kuota  
ordainduz gero

**Hilean**

**25 €**

Ordutegi eta ikastaro mailak • Trat. pertsonala eta profesionala • Doako aparatuak zabala

**LES MILLS  
BODYPUMP**

BodyPump diziplinaren irudi erreala, Les Mills-ek utzitakoa.

## Ikastaro gidatuak

### • KARDIO

- Spining (900Kcal sesioko)
- BodyPump (800Kcal sesioko)
- BodyCombat (1000Kcal sesioko)
- BodyJam (dantzekin konbinatua)

### • GORPUTZ-BURU

- Pilates
- Yoga
- BodyBalance
- Tai Chi

## Fitness

programa  
personalizatua

- Entrenamenduak
- Fitness gela jantzia
- Kardio makinak gela

## Arte Martzialak

- Jiu-jitsu (ume zein helduentzako)
- Defentsa pertsonala
- Krav-Maga (Israelgo borroka eredu)
- Judo (ume zein helduentzako)

## Dantzak

- Dantza modernoak
- Flamenko (ume zein helduentzako)
- Brake-dance
- Karibeko dantzak (salsa, batxata, merengoa, cha cha cha)
- Aretoko dantzak (paso doblea, etahar)

## Goza ezazu Elgoibarko

Kirol anitzeko gimnasioaz

# TX4 fitness

Xixilion 1, local 5-8

Pol. Ind. SIGMA

ELGOIBAR

T. 943 105 277 • 649 983 340

**LES MILLS  
BODYJAM**

**LES MILLS  
BODYBALANCE**

**LES MILLS  
BODYPUMP**

**LES MILLS  
BODYCOMBAT**

Gainera,  
kupoi honi  
esker gure  
kirol eskaintza  
guztiko bat  
aukeratu  
ahal izango  
duzu DOAN

Ikastaro gidatuak

Fitness

Dantza ikastaroak

Arte martzialak

Txartel hau  
doako sesio

**1** engatik  
alda daiteke

Kupoiak ezin dira batu. Otsailaren 31a arte balio du.

**LES MILLS**

**TX4 fitness.com**



## Domekan denok Mintxetara

Ate joka daukagu Juan Mugertza Krosa, Euskal Herriko kirol ekitaldi nagusietakoa. 1944an jokatu zen lehenengoz, eta ordutik, izen handia hartu du lasterketa honek; eta ez pentsa kasualitatez izan denik. Urteetako eskarmentua, atletismoarekiko konpromisoa, harrobiaren aldeko apustua eta urtetik urtera hobetzeko egindako ahalegina daude horren atzean.

Krosa antolatzea ez da lan makala, eta horregatik, lerro hauen bidez antolakuntza taldekoak zoriondu nahi nituzke. Handia da egiten dutena, bai Elgoibarko herriaren izena zabaltzeko, eta baita, jakina, azken urteetan gainbehera egin duen atletismoa suspertzeko. Horregatik guztiagatik, oso lasterketa berezia da niretzako igandekoa. Donostiako maratoiarekin eta Azpeitiko maratoi erdiarekin batera, lasterketarik estimatuenetako bat da niretzako Mugertza Krosa, eta horregatik, ahal dudan bitartean eutsiko diot urteroko zita honi.

Izan ere, oroitzapen onak dauzkat. 1990. urtean joan nintzen lehenengoz Juan Mugertza Krosa ikustera, Lerunera. Gogoan dut hiru lasterketa jokatu zirela eta hiruretan beltzek irabazi zutela. Gogoan daukat, era berean, aurre-aurrean zebilen bat, Martin Fiz oker ez banago, asko animatzen zuela jendeak. Hala ere, sasoi hartan partaide bakarra ezagutzen nuen nik: Santi Maiztegi. Mendaron askotan ikusia nuen korrika, eta sarri irabazten zuenez, onenentzat naukan nik. Lerunen, baina, estu hartu zuten beste batzuek, eta hala jabetu nintzen maila handia zegoela han. Nik neuk, 2003an jokatu nuen lehenengo aldiz Mugertza Krosa, eta

ordutik, 2006an ez beste urte guztietan izan naiz han. Egun berezia izaten da oso, eta baita hunkigarria ere Mugertza Krosak aspaldiko lagun bat ekartzen didalako gogora: Jabier Ezenarro zena. Atletismoa bizi zuen Ezenarrok, eta haren omenez nire onena ematen saiatuko naiz domekan ere, nahiz jakin afrikarrek gogoz hartzen badute lanak izan ditzakegula bukatzen.



Iker Maiora, atleta

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Atletismoa bizi zuen Jabier Ezenarrok,  
eta haren omenez nire onena ematen saiatuko naiz domekan ere”**

## MUGERTZA KROSEKO IRUDIAK JARRIKO DITUGU ASTELEHENEAN



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

 **ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA

# Krosaren jaia



**Iritsi da atletismo zaleen urteroko zita. Domekan, Juan Mugertzaren omenezko krosa jokatu da Mintxetan, eta urtero legez, izen handiko korrikalariak ikusteko aukera izango da. Mintxeta Atletismo Taldeko arduradunek aitortu dute hamaika buruhauste izan dituztela aurten diru kontuak lotu eta atletak ekartzeko, baina azkenean, aitzakiarik gabeko kartela osatu dute. Punta-puntako antxixikariak izango dira Mintxetan, baina denen artetik bi izen nabarmendu behar dira: Leonard Komon iazko Mugertza Kroseko irabazlea, gizonezkoetan, eta Emily Chebet aurtengo munduko txapelketa, emakumezkoetan.**

**Ainara Argoitia**

kuskizuna ziurtatuta dago domekan Mintxetan, baina aurtengoa ez da kosta bakoia izan antolatzaileentzako. Izan ere, nazioarteko kros bat antolatzeak berezko dituen zailtasunei krisia batu zaie aurten. Diru sobera handirik gabe lan egiten ohituta daude Mintxeta Atletismo Taldekoak, baina aurten, babesle batzuk galtzeko arriskuaren jakitun, hainbat ekintza antolatu behar izan dituzte urtean zehar, Mugertza Kroserako dirua batzeko. Irailean, esate baterako, gaueko krosa antolatu zuten estreinako Elgoibarren, eta 168 lagunek egin zuten bat ekimen harekin. Handik eta hemendik batutakoarekin, eta herritarrek eskainitako laguntzarekin, baina, primerako lasterketa antolatu dute domekarako, nahiz eta azken orduko eragozpenek kolokan jarri duten hainbat atleten

parte-hartzea, Zigor Diez Mintxeta Atletismo Taldeko kideak jakinarazi duenez.

Elgoibarren Mugertza Krosa jokatu den egun berean, domekan, polizia eta militarren txapelketa jokatu da Kenyan, eta hango atleta asko poliziak eta soldaduak direnez, antolatzaileek ezin izan dituzte Elgoibarrera ekarri. Era berean, Munduko Kros Txapelketa astebetez aurreratu izanak ere kalte egin dio Mugertza Krosari. Izan ere, munduko txapelketa hori prestatzera Europara etorritako atleta etiopiarrei euren herrialdera itzultzeko agindu die federazioak, munduko txapelketarako puntuagarriak diren probak jokatu beharko dituztelako aurki Etiopian. Bi arrazoi horiek asko zaildu dute Kenyako eta Etiopiako korrikalarien parte-hartzea.

Nolanahi ere, eta antolatzaileek nahiko lituzketen guztiak egongo ez badira ere, Mintxetako irteeran izango dira, besteak beste, Emily Chebet eta Leonard Komon kenyarrak. Chebetek Munduko Kros Txapelketa irabazi zuen iaz Polonian, eta Leonard Komon, berriz, munduko bi errekor ontzetik dator: Utrecht (Herbehereak,) hamar kilometrotako marka hobetu zuen, 26 minutu eta 44 segundoko denborarekin, eta bera da proba hori 27 minutuz azpitik egitea lortu duen lehen gizonezkoa. Era berean, hamabost kilometroko probako errekorra ere ondu zuen (41:13), Nijmegen (Herbehereak). Elgoibartarrek ezaguna dute, gainera, Komon, birritan irabazi duelako Mugertza Krosa: 2008. urtean eta iaz. 2009an, berriz, hirugarren sailkatu zen.

# BEGIZ JO BEHARREKO ATLETAK



## Emakumezkoak




**Emily Chebet (Kenya, 1986)**  
Iaz Polonian jokatu zen munduko txapelketako irabazlea da. 2003. urtean, bestalde, bosgarren sailkatu zen juniorren munduko txapelketan.




**Margaret Muriuki (Kenya, 1986)**  
Seigarren sailkatu zen iaz Polonian jokatu zen munduko txapelketan. 2008. urtean, berriz, zortzigarren egin zuen Edinburgon jokatu zen munduko txapelketan.




**Benita Willis (Australia, 1979)**  
Munduko txapelketan hamazazpigarren sailkatu zen iaz, Polonian, eta 2008ko munduko txapelketan, berriz, hamaikagarren egin zuen. 2004an munduko kros txapelketa irabazi zuen.



**Ana Dulce Felix (Portugal, 1982)**  
Iaz Albufeiran jokatu zen Europako txapelketan hirugarren egin zuen, eta baita Mugertza krosean ere. 2009an seigarren izan zen Dublinen jokatu zen Europako txapelketan.



**Sara Moreira (Portugal, 1985)**  
Europako txapelketan bederatzigarren sailkatu zen iaz, eta hamargarren egin zuen 2009an, Dublinen. Bartzelonan brontzezko domina irabazi zuen 5.000 metrokoan.



**Alessandra Aguilar (Espainia, 1978)**  
Europako txapelketan zortzigarren egin zuen iaz, Albufeiran, eta Bartzelonan zazpigarren sailkatu zen Europako maratoi txapelketan. Audioko krosa ere irabazi zuen.

## Gizonezkoak



**Leonard Komon (Kenya, 1988)**  
Birritan irabazi du Mugertza Krosa, 2008an eta iaz. Era berean, eta iaz bezala, aurten ere laugarrena izan da munduko txapelketan. Asteburuan Italice proba irabaztetik dator.



**Sergey Lebid (Ukraina, 1975)**  
Azken orduan Moses Kipsiro jausi da parte hartzaileen zerrendatik, eta haren lekua hartu du Lebidek. Europako Kros txapeliduna izan zen iaz. Guztira, bederatzi alditan jantzi du txapel hori.



**Tiago Costa (Portugal, 1985)**  
Europako 23 urtez azpiko azken txapelketan zazpigarren egin zuen.



**Rui Pedro Silva (Portugal, 1981)**  
Europako kros txapelketan zortzigarren sailkatu da aurten, eta 2006. urtean bosgarren egin zuen Europako txapelketan.



**Chema Martinez (Espainia, 1971)**  
Europako txapelidunordea da maratoioan.

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikuzunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN  
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK  
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres  
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,  
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai  
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva  
García, Miriam García, Jesus Mari  
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,  
Maialen Arnedo. INPRIMATEGIA Gertu Koop.  
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-  
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA



MENDAKO UDALA



MENDAKO UDALA



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikuzunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Itxaropena, ardurak eta pausoak

Ezker abertzaleak egindako eztabaidak hautsak harrotu ditu onartu zenetik urtebete eskaseko epean. Egoera politikoa erabat aldatu du, eta gaur egun, urte luzetako gatazka konpontze bidearen hasieran egon litekeela esan dezakegu. Pausoak etengabe eman dira, elkarlana bilatu da, eta jendarteak eskatzen duen norabideetan indarrak metatzeari ekin diogu, bai EArekin, bai Alternatibarekin, bai gehiengo sindikalarekin eta baita beste hamaika eragilerekin ere. Eskubide politiko, zibil eta demokratikoen alde, Gernikako Akordioan gutxiengo demokratikoen alde, Independentziara bidean, ezkerreko erreferentzia berriak sortzen, preso en eskubide en alde etab. Bide horretan bakoitzak bere ekarpenak egin ditu, nor bere arloan, eta ETA erakundeak berak ere berea egin du gutxiengo demokratikoen arloan.

Hitzak eta erabakiak herritarren esku behar duela inoiz baino argiago dago, eta horregatik harritzen gaitu Elgoibarko EAJri entzuteak itxaropenik ez duela sortu erakundearen azkenengo mezuak. Ezker abertzelean ilusioz bizi dugu garai hau, ilusioz eta lanerako grinez, baina batez ere arduraz. Guk, mugimendu politiko garen heinean, EAJk bezala ardura handia daukagu datozen hilabeteetan egoerak izango duen bilakaeran, eta gure onena emateko prest gaude, jendartearen gehiengoak eskatzen digun bezala gatazka armatua behin betiko parametro demokratikotara ekarri eta behin betiko gainditu dezagun. Horretan zer esana dute nola ez Espainiako Gobernuak, Frantziako Gobernuak eta baita EAJk ere, dagokion neurrian.

Aurreko saiakeratan pena hartu dugu EAJ Espainiako Gobernurekin lerratu eta izan duen jarrera oztopatzailea ikusita. Eta gaur egun ere pena hartzen dugu Gobernuarekin bat egin eta haren esanen irakurketa fotokopiatua egiten duenean. Ikusi dugu nola kidezen den PSOErekin, dela aurrekontuak onartzeko, edo dela euskal langileen aurkako neurriak ahalbidetzeko, lan erreformaren kasuan bezala edota datorkigun pentsioen erreforman bezala (27an euskal langileria kalera!). Aukera bi baino ez daude egun, al daketa oztopatzen segitzea alderdi interesei eta xoxei begiratuta edo konponbidearen laguntzara biltzea, alderdikeria alde batera utzita. Tamalez

uste dugu EAJk autua egina duela. EAJren zuzendaritzak bai ez duela itxaropenik sortzen, Ibarretxeren hitzetatik EAJren pausoetara biderik ez baita inoiz egin.

Guk bidea argi daukagu: indarrak biltzen jarraitzea eta pausoak ematen jarraitzea. Azken finean, daukagun erronkaren (espainiar estatua eta frantziar estatuak mugiaraztea) tamaina ikusita, jakin baitakigu itxaropena ez dela nahikoa, errepresioak etenik ez duela izango eta lana eta borroka larrutik egin beharko dugula. Badakigu, ordea, horretarako jendartearen luze zabalean lanera bilduko diren eragile eta pertsonak aurkituko ditugula, baita EAJren oinarrian ere seguraski. Beraz animo, eutsi eta nola ez, ilusioz lanera. Geurea da garaipena!

**Elgoibarko ezker abertzalea** ☞

### Eskerrik asko!

Mendaroko Leku Ona tabernak eskerrak eman nahi dizkie zapatuko bertso bazkarira baturu ziren guztiei.

Eskerrik asko, era berean, Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariei, Janire Elordi eta Xabi Etxaniz trikitilari, Mendaroko Udalar, mahaia eta aulkiak lagatzeagatik, Mendaroko Gazte Asanbladari, ahots-ekipoa lagatzeagatik, Mendaroko ezker abertzaleari, tabernako nagusiek izan zuten detailearengatik, zerbitzuen lagundu nahi izan zuten guztiei, eta nola ez Aitzol Urain mendaroko gazteari, Leku Onaren 20. urteurrena ospatzeko antolatutako egun ahaztezin horretan gidari lanak egitearren.

**Leku Ona taberna** ☞



Anjel  
Ugarteburu

Ez jagok  
atsedenik. Bizi  
garen artean, beti  
zereginen bat gure zain.  
Jubilatu eta gero ere halatsu.

Eta ez dok seinale txarra. Lan mo-  
duak aldatzen dituk, baina zereginak beti dituk zeregin. Bizi ga-  
ren artean hala izango dok. Izan ere, bai estua eta labainkorra osa-  
sun betearen eta txakil aldiaren, bizitzaren eta heriotzaren arteko marra!

### “Nagusion aurreiritzi antzurik gabeko gazte garbiei egin behar diegu leku”

Bitartean sinpatiaz jokatu nahi joat. Grekoen hizkuntzan, ondo dakik, besteekin sufritea nahiz gozatzea esan nahi jok berba horrek. Ematen duan neurrian jasotzen duk besteen bihotz berotasuna eta argiago ikusten dok lehen antipatiak lausotzen zuen ikuspegia; maskara asko lurrera jausten dituk eta heu eta neu bezalako pertsonekin egiten dok topo.

Politikak ere beste dimentsio bat hartuko lukek bloke zurrunei astindu bat emango bagenie. Bizitzaren izenean eman ere. Arnaldoren aldeko plataformako bileretan ezer ikusi eta ikasi baijatz horixe izan dok. Beste edozeinek bezala Herri honentzat bakezko etorkizun oparoa nahi joago elkar-tzen garen heldu zein gazteak. Nagusion aurreiritzi antzurik gabeko gazte garbi eta leialei egin behar diegu leku. Har dezatela haiek gizartearen lema, ia zerbait hoberik datorkigun. Bekaizkeriak eta gorrotoak kapital bat izango balira legez banketxean gordetzen dituzten horiekin jai jaukagu

Harriesietan jagok askoren pagotxa eta horretan gurea bezalako Herri txikiak eta herritar xumeak galtzaile dituk. Gizatasunak galtzen jarraituko duelakoan niagok.

Gaur ere saio serioa, Andres, heuk erremediatzen ez baduk.



Andres  
Alberdi

Ondo serio ekin diok, bai, gaurkoari; eta ez didak izkin egiteko aukerarik ere ematen. Serio antzean jarraitu behar, beraz, hik hasita-koari. Egia esaten hasita zera aitortu behar diat: jendeak eupada gehiago egiten zidak irri- edota li-zun-kontuak ditugunean mintzagai; apenas, gauza serioagoak baldin baditugu eztabaidagai. Baina gaurkoan serio aritzeko beste aukerarik ez didak laga.

Hire pasartean gehien gustatu zaidana gazteengan jar-tzen duan itxaropena duk: nagusion aurreiritzi antzurik gabeko gazte garbi eta leialei egin behar omen guk tokia. Hala behar dik, ha-la duk-eta bizitzaren legea. Eta horixe desio zieat benetan, ea lortzen dituzten guk ezin izan ditugun helburuak, eta behingoz gizatasuna izaten den gizartearen ardatz.

Horretarako, gure aldean, abantaila handiak dituzte: prestakun-tza askozaz hobe, bitarteko materialak zer esanik ez, taldean lan egiteko ohitura handiagoa, aurreiritzi itsurik ez... Desabantailak ere badituzte, ordea, eta ez txikiak, alafede: ekonomia-krisia, ideologia difusoagoa, kontsumismoaren eta marka komertzialen morrontza, individualismo zekena, hedonismo antzurako joa...

### “Giza harreman egokiak lortzeko sinpatia ezinbestekoa izango ditek”

Onena opa behar zieagu beren ibilian, jakina. Giza harreman egokiak lortzeko hik aipatzen duan sinpatia (besteak bezala senti-tzea) ezinbestekoa izango ditek, eta gaur egun usuago erabiltzen den eta gauza bertsua adierazten duen enpatia (besteren larruan jartzeko ahalmena, alegia) ere beharko ditek. Batatik edo bestetik, denetik beharko ditek etorkizun itxaropentsua marrazteko.

Astelehena duk, San Anton eguna, goizeko hamaikak; Getaria-ra noak txakolin-dastaketara. On dagigula!



**BARREN** Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

2010eko harpidetza kuotak ondorengoak izango dira

- ▶ Euskal Herria eta Espainia: **20,50 €** / Bazkideek: **16,40 €**
- ▶ Europa: **30,75 €** / Bazkideek: **24,60 €**
- ▶ Europatik kanpo: **41,00 €** / Bazkideek: **32,80 €**

Norbaitek harpidetza eten nahi badu, jar dadila gurekin harremanetan:  
943 744 112 (Ainhoa) edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Xabi Alonsori eman diote aurten urrezko danborra.

## Zure esku balego, nori emango zenioke urrezko danborra?



**Paul Fernandez**  
9 urte, ikaslea

Markel Bergarari! Realean jokatzen duelako, eta elgoibartarra delako. Ni ere Realzalea naiz, eta gustatuko litzaidake egunen batean Realean jokatzea. Markel Bergara da Realean gehien gustatzen zaidan jokalaria, baina taldea ere gustuko dut.



**Ainhoa Mugertza**  
12 urte, ikaslea

Niri dantza egitea gustatzen zait, beraz, Josu Mujikari emango nioke, dantza munduan gauza garrantzitsuak egin dituelako. Hip-hop eta estilo modernoko dantzak gustatzen zaizkit, bereziki. Niri ere egunen baten dantzaria izatea gustatuko litzaidake.



**Jesus Jimenez**  
34 urte, bankuko langilea

BARRENI emango nioke, herriarrentzat eta herritarrentzat lan garrantzitsua egiten duela iruditzen zaidalako. Zain egoten gara, eta ostiralero oso gustura hartzen dugu etxean. Nire esku balego, beraz, urrezko danborra BARREN astekiarrentzat izango litzateke.



**Resu Arakistain**  
62 urte, etxeakoandrea

Emakume bati, hori seguruki! Lehengo emakume bati emango nioke, isil-isilean lan handia egin duten horietakoren bati. Dela, sukaldaria, dela jostuna, irakaslea... Gure ama edo amama bezalakoren bat aukeratu nuke, denon ordezkari. Merito handiko emakumeak daude.

## ■ SEMAFOROA




**Barrakak Ubitarte kalean jarri dituzte:** "Ez da bidezkoa zona bateko bizilagunak hainbeste zigortzea. Lehenengo Antonio Arrillaga kaleko obrak jasan behar izan genituen, eta gero Ubitarte kalekoak. Urte erdi baino gehiago egon gara sekulako zarata jasaten, bai astean zehar eta baita zapatuetan ere. Orain obrak bukatu eta atsedena hartu behar genuen, barrakak jarri dizkigute etxe aurrean. Madalako parketik Ubitartera ekarri dituzte, eta ez zait batere ondo iruditu. Gure kalea dagoeneko zabalki egon behako litzateke, eta berriz itxita daukagu. Espero dut barrakak laster kentzea, [kenduta daude dagoeneko] eta hurrengorako kontuan hartzea nahiko jasan dugula, dagoeneko".

**Jubilatuak biltokiko tabernan ez dute mahaietara zerbitzatzen:** "Jubilatuak egoitzako tabernako arduradunek ez dute mahaietara zerbitzatzen. Kafea edo dena delakoa barran eskatu eta norberak eraman behar izaten du bere lekura. Jubilatuak egoitzan ibiltzen garen gehienak 80 urteren bueltakoak gara, eta zaila egiten zaigu kafea eskuan hartuta mahairaino joatea. Hainbesteko lana al da mahaietara zerbitzatzea? Horrez gain, domeketan taberna itxita egoten da, hain justu, dantzaldia egoten den egunean. Kanpoko jendea ere etortzen da dantzara, eta taberna itxita egoten da. Udalari eskatu nahi diogu jubilatuak ere kontuan hartzeko, mesedez".



**Santa Ana kaleko zuhaitz azpiak txakur kakaz beterik egoten dira:** "Badirudi herriko txakur-jabe guztiek Santa Ana kalera eramaten dituztela txakurrak kaka egitera. Hogei kaka pila inguru kontatu nituen egun berean! Lehenengo pisuan bizi gara, eta leihora irtetean hori ikustea ez da batere atsegina. Santa Klaran eta Leku Ederren txakurrak debekatu dituzte, eta Santa Ana kalean ere gauza bera egitea eskertuko genuke".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) 943 744 112



Abenduan...

**JAIOTAKOAK**



**Alex Senra Jorin**  
Abenduak 2  
Alejandro eta Dolores



**Beñat Agirre Ansola**  
Abenduak 11  
Jesus Mari eta Ainhoa



**Hegoa Villanueva Sanz**  
Abenduak 9  
Ibon eta Nagore

**Alicia Cristina Achim**  
Abenduak 3  
Christian eta Mihaela

**Uxue Gutierrez  
Zelaia-Zugadi**  
Abenduak 10  
Miguel Angel eta Zuriñe

**Mara Lopez de Sabando  
Ballesteros**  
Abenduak 13  
Ion eta Concepcion

**Maria Victoria Vila  
Chavez**  
Abenduak 16  
Jorge eta Maria

**Nahia eta Jon Garate  
Estevez**  
Abenduak 22  
Jon Joseba eta Virginia

**HILDAKOAK**

- Francisco Javier Juaristi Dantos • 57 urte • Abenduak 3  
 Maria Astigarraga Arozena • 93 urte • Abenduak 8  
 Pako Aizpurua Arostegi • 88 urte • Abenduak 10  
 Francisco Javier Armero Bergara • 61 urte • Abenduak 3  
 Maria Crespo Otero • 88 urte • Abenduak 14  
 Juan Garcia Bouzas • 57 urte • Abenduak 15  
 Ana Garate Goyarzun • 96 urte • Abenduak 18  
 Ernestina Garrido Figeira • 76 urte • Abenduak 15  
 Francisco Romero Matamoros • 83 urte • Abenduak 19  
 Fermin Ruiz de Gauna • 87 urte • Abenduak 20  
 Jesusa Basauri Markiegi • 84 urte • Abenduak 26

**ETXEBERRIA**

Hileta zerbitzua  
OSOA eta 24 ORDUKOA

**TANATORIOA**



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.

## Pilarren zahar egoitza egitea izango da Debabarrenako "proiektu garrantzitsuena"



**P**ilar ikastetxearen eraikinean zahar etxea egitea da Gipuzkoako Foru Aldundiak Debabarrenerako aurreikusitako proiekturik garrantzitsuena. Hala jakinarazi zuen martitzenean Maite Etxaniz gizarte politiketarako diputatuak. Elgoibarko, Sorluzeko eta Mendaroko gizarte zerbitzuetako 40 arduradun ingururekin batu zen martitzenean Elgoibarko Kultur Etxean, diputazioak azkeneko hiru urteetan landu duen kudeaketa planaren berri eman eta batzarrean bildutakoek ekarpenak jasotzeko. Batzar horretan Pilarreko egoitzaren gaineko hainbat argibide eman zituen foru diputatuak, eta etorkizuneko asmoen eta azpiegitura estrategikoen gainean ere mintzatu zen.

### Pilarreko proiektua lehiaketara

Maite Etxanizek aurreratu zuenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurten atera nahi du Pilarreko proiektua lehiaketara. Proiektu horrek bi alor hartu beharko ditu kontuan: batetik, obraren diseinua bera, eta bestetik, kudeaketa plana. Lehiaketa egin eta proiektua aurtengo partean esleitu nahi dute, obrak urtea amaitu aurretik hasi eta 2014rako amaitu ahal izateko.

Pilarreko zahar egoitzak hiru gunek izango ditu: batetik, egoitza bera, bestetik eguneko zentroa, eta azkenik, buruko gaixotasunak dituztenak hartzeko gunea. Zahar egoitzan, 150 lagunentzako lekua izango da, eguneko zentroan 30 lagunentzako, eta hirugarren gunea, berriz, 30 lagunentzako egokituko dute. Obra horrek gabezi handi bati erantzun dio, Maite Etxanizen arabera. Izan ere, gaur egun 65 urtez gorakoen %3,3rentzako lekua dago Debabarrenako adinekoentzako zentroetan, eta Pilarreko egoitza bukatutakoan, adin horretatik gorakoen %4ra iritsiko da. "Gaur egun atzeratuta gaude eskualde honetan, baina %4ra iritsita besteen pare jarriko gara", aitortu zuen Etxanizek.

## Kiroldegia Mintxetara eramateko proiektua "txisteratik" atera izana egotzi dio ezker abertzaleak Udalari

Herritarren hitza entzun gabe, proiektuak nahierara eta "ezkutuan" onartzea leporatu dio ezker abertzaleak Elgoibarko Udalari. Ezker abertzaleak salatu du Hirigintza Plan Orokorra idazteko hartutako hiru urteetan ez dela kiroldegia Mintxetara eramateko proposamenik edo proiekturik aztertu, eta horrenbestez, proiektu hori "txisteratik" atera izana egotzi dio. Ezker abertzaleak dio Hirigintza Plan Orokorrean bertan Udalak Olaizaga kiroldegia handitzeko asmoa jaso zuela, baina ez kiroldegia lekuz aldatzekoa.

Anbulatorioa lekuz aldatzeko proposamenaren gainean, Irabanetan gunek industrialak egiteari buruz, eta Pilarreko proiektuaren gainean, Udala herritarrei bizkarra emanda ari dela salatu du ezker abertzaleak. Horren harira esan du Udalak ustez herritarren parte-hartzea sustatzeko egindako ekintzak "adar jotze hutsa" izan direla eta adierazpen horiek "alkatetzaren aurpegia garbitzeko" baino ez direla egin. "Ustezko partaidetza erabiltzen dute komeni zaienean herritarrek euren proiektu desarrollistak babesteko. (...) Azkenik, inor konturatu gabe, euren nahi dituzten proiektuak ateratzen dituzte aurrera, erdi ezkutuan", dio idatziak.

## King Kongeko zubiko baranda aldatzen dihardute egunotan



King Kongeko zubiko baranda dihardute egunotan. Lehengo baranda zaharra kendu eta ugertzen ez den baranda jarriko dute haren ordean. Bestalde, Errosario kaleko lurra lakartzen hasi dira aste honetan beharginak. San Frantzisko kalean egin zuten moduan tratamendu berezi bat emango diote lurrari, horren irristakor izan ez dedin.

## Pertsonaia **Mikel Ibañez**



Espetxe arindua betetzen ari zen Mikel Ibañez elgoibartarra baldintzapean libre laga zuen urtarrilaren 16an Espainiako Auzitegi Nazionalak, osasun arazoak tarteko. 27 urteko espetxe zigorra zuen Ibañezek, baina espetxeko zuzendaritzak aske uzteko eskatu zion Auzitegi Nazionalari. Martutenen zegoen espetxeratuta Ibañez, baina abenduaren 27az geroztik ospitalean dago. Epaileak arrazoitu du zigorrak ez duela presoa gizarteratzeko funtzioa beteko, eta "giza duintasunak, bizitzeko eskubideaz gain, modu duin batean hiltzea ere" eskatzen duela.

## Berbia **Sendi Anaitasuna**

Mendaroko Sendi Anaitasuna erakundeak urteko batzarra egin zuen joan zen domekan. Urteko balorazio ekonomikoa egin zuten batzarrean, eta 2010a 1.166,66 euroko irabaziekin amaitu zutela azaldu zuten. 2010. urtean, 933 bazkide zituen Sendi Anaitasunak, 2009. urtean baino hamar gutxiago. Era berean, zuzendaritza ere aldatu zuten domekako batzarrean. Aingeru Gallastegi eta Unai Lopez arduratu dira azkeneko bi urteetan, eta aurrerantzean, bi urtez, Aimar Gurrutxagak, Igor Iraolagoitiak eta Enekoitz Elorzak hartuko dute elkartearen gaineko ardura.

## Irudia **Urteko lehenengo umea**

Bilal Attigui Mesaoud izan da 2011n Elgoibarren jaio den lehenengo umea, eta Espainiako Gobernuak abenduaren azkenera arte banatu ohi zuen 2.500 euroko diru laguntza kendu bazuen ere, Bilalen gurasoak ez dira esku hutsik etorri. Izan ere, EAJren Elgoibarko Uri Buru Batzarrak otarra bat oparitu die Bilalen gurasoei, urteko lehenengo umea izatearren. XX. mende hasierako ohitura bat berreskuratu du hala EAJk.



## **Txernobilgo haurrak etxean hartzeko familiak behar dituzte udarako**

Txernobilgo Lagunak elkarteak udan Txernobilgo haurrak hartuko lituzketen familien bila ari da, eta urtarila bukaerara arte luzatu dute abegi familiak lotzeko epea. Txernobilgo zentral nuklearraren hondamendia gertatu zenetik 25 urte bete dira aurten, eta hango umeak hondamendi haren ondorioak jasaten ari dira oraindik. Osasunerako Mundu Erakundearen arabera, ume horien bizi-itxaropena 12-18 hilabete artean luzatzen da gure artean igarotzen dituzten bi hilabeteetan, eta %40an gutxitzen da euren gorputzean pilatutako erradioaktibitatea. Haurren bat hartzeko prest dagoenak [www.chernobilenlagunak.com](http://www.chernobilenlagunak.com) webgunean lor dezake informazio gehiago edo 689 686 277 telefono zenbakira deituta.

## **Grebara deitu dute hilaren 27rako, pentsioen erreformaren aurka**

ELA, LAB, EHNE, Hiru eta ELASEk egin dute grebarako deialdia. Espainiako Kongresuan grebaren biharamunean bozkatu dute pentsioen erreforma, eta sindikatuetako ordezkariak aitortu dute bozketa horretan botoa emango duten alderdiak baldintzatu nahi dituztela, langileak kalera ateratzera deituz. Sindikatuek salatu dute erreforma gogorrena dela pentsioekin egin nahi dena, eta krisiaren aurka hartzen ari diren neurriekin krisia sortu zutenak irtingo direla irabazle.

## **Akei baserriko astoa saritu dute Lazkaoko Astotxo Egunean**

Txomin Arriolaren astoak irabazi dute beste urte batez Lazkaoko Astotxo Eguna. Aspaldiko ohiturari jarraituz, jendetza handia batzen da urtero Lazkaon Astotxo Egunez. Han, Euskal Herriko astorik politena aukeratzeko dute.

# josu palacios

## 11 urte

**Zelan ospatu dituzu Gabonak?**

Etxean ospatu genituen hasierako egunak, familiakoekin. Urte zaharra, bestalde, Santanderren pasatu genuen, lagun batzuekin.

**Opari asko jaso dituzu?**

Bai, pila bat! Asko jolastu dut Gabonetan.

**Zer eskatzen diozu urte berriari?**

Familiako guztiak osasuntsu egotea eta denok pozik bizitzea.

**San Anton egunean zer egin zenuen?**

Plaza Handian jarri zituzten puzgarrietan ibili ginen. Merkealdiak direnez, nire arreba erosketak egitera joan zen lagunekin, baina ni, ez.

**Joango zara domekan Mugertza krosa ikustera?**

Ez dakit. Zumaia koren kontra jokatuko dugu asteburuan, eta domekan bada, ezin izango naiz krosa ikustera joan. Bestela, baina, urtero joaten naiz.

**Zergatik dira azkarrenak korrikalari afrikarrak?**

Korrika egiteko gorputz hobea daukatelako, hobeto daude prestatuta.

**Zuri zein kirol gustatzen zaizu gehien?**

Futbola, saskibaloia eta eskubaloia. Hiruretan jokatzen dut Eskola Kirolean, eta CD Elgoibarren ere jokatzen dut futboleant.

**Handitan zer izan nahi duzu?**

Ez dakit, oraindik ez dut pentsatu.

**Maiatzean hauteskundeak izango dira. Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?**

Txinatar jatetxea zabaltzeko, gustura joaten nintzen eta.

**Bizitzeko leku aproposa iruditzen zaizu Elgoibar?**

Bai, niri gustatzen zait. Madalako parkea oso ondo geratu da, eta Plaza Handian ere asko jolasten dugu, pilotan, tenisean edo futboleant.



### 'Betizu' marrazki lehiaketan Izar Palacios saritu dute

La Caixak antolatutako 'Betizu' marrazki lehiaketan Izar Palacios elgoibartarra saritu dute. Euskal Herri osoko umeek hartu dezakete parte lehiaketan, eta aurten, 1.200 marrazki inguru aurkeztu dituzte lehiaketara. Izar Palaciossek 5 eta 8 urte bitartekoen mailan hartu du parte, eta bigarren saria eskuratu du.



# Nori eskatuko zenioke autografo bat?

## **Aimar Elizburu** **6 urte**

Bob Esponjari. Berarekin eta bere lagunekin ur azpian aterako nuke argazki bat.



## **Angel Moreno** **6 urte**

Iker Benitori, bera delako nire lagunik onena. Agian ez dit emango, baina eskatuko diot.



## **Dune Hansen** **6 urte**

Angel Martin hip-hop dantzariari. Herriko Antzokian ikusi nuen, eta asko gustatu zitzaidan.



## **June Muñoz** **6 urte**

Ez dakit, ez daukat idolorik. Agian Patito Feori. Gauetan ikusten dut, sofan edo ohean.



## **Nalaia Almenara** **6 urte**

Patito Feori, oso ondo abesten duelako. Niri ere asko gustatzen zait abestea.



## **Ibane Gisasola** **6 urte**

Antonellari, Patito Feo telesaileko aktoreari. Oso ondo abestu eta dantzatzen duelako.



## **Elgoibar Ikastolak zilarrezko Q saria jaso du**

Kalitatearen zilarrezko eta urrezko Q sariak banatu zituen Eusko Jaurlaritzak BECen abenduaren 26an, eta, sarituen artean, Elgoibar Ikastolak zilarrezko Q saria jaso zuen. Besteak beste, German Meabebasterretxea kooperatibako lehendakaria eta Edurne Bilbao lehendakari-ordea joan ziren saria jasotzera. Ikastolako arduradunek ondorengo adierazi dute: "Errekonozimendu honekin Ikastolak duen kudeaketa sistema aurreratua eta sistema hau etengabe hobetzeko egiten ari den ahalegin guztiak saritzen dira".



## Erretratu zaharra



1969

Aste honetako erretratua Juani Loiolak ekarri du BARRENERA, eta Mendaron ateratakoa da. 1969-70 ikasturteko argazkia da, Konbentu zaharraren ondoko eskaileretan ateratakoa. Ikus ditzagun nortzuk diren argazkiko neskatilak: **Goiko ilaran:** Mari Jose Larrañaga, Mari Kontxi Korta, Txaro Eizagirre, Juani Iriondo, Izaskun Urbizu, Juani Loiola eta Josefa Pelaio. **Erdiko ilaran:** Mari Kontxi Zubiaurre (+), Rosarito Zulaika, Lurdes Etxeberria, Mari Angeles Larrañaga, Arantxa Iriondo, Rosarito Iturria, Mariasun Isasti, Pilar Salegi. **Hirugarren ilaran:** Arrate Ondarra, Maite Txurruka, Belen Prieto, Almudena Ferreiro, Gemma Garate, Arrate Zulai-ka, Mertxe Aspiazu eta Maria Jesus Marin. **Tarteko lerroan:** Pili Albizu.



ESKERTZA

### FRANCISCO JAVIER JUARISTI SANTOS

2010eko abenduaren 3an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

### CAMILA GONZALEZ GALLEGO

2011ko urtarrilaren 2an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# ANTON URREISTI

Margolaria



**Anton Urreisti margolariak hamar sari eskuratu ditu 2010ean, eta horietatik bost lehenengo sariak izan dira gainera. Hasieran urte txarra izango zela uste zuen Urreistik. Otsailean aita hil zitzaion eta margotzeko gogorik gabe geratu zen. Etxekoek animatuta ekin zion margotzeari, eta uste baino askoz emaitza hobek lortu ditu. Azken urteak, oro har, oparoak izan dira Mendaron bizi den margolari mutrikuarrentzat: 2008tik hona 27 sari eskuratu ditu, eta horietatik hamabi lehenengo sariak izan dira.**

## “2009a pozik amaitu nuen, eta 2010a askoz hobea izan da”

**Hamar sari eskuratu zenituen 2010ean. Nolako balorazioa egiten duzu?**

Oso ona. 2009a oso pozik amaitu nuen, eta 2010a askoz hobea izan da. 2009an ere hamar sari eskuratu nituen, baina ez ziren hain onak izan. 2010eko sarietatik bost garaipenak izan dira, eta beste bitan, bigarren saria lortu dut. Hori sekulakoa da.

**Zein izan da lortu dituzun sarien artean ilusio gehien egin dizuna?**

Mutrikuko lehiaketan eman zidaten bigarren saria izan da niretzako bereziena. Normalean, herri baten irabazten badut hurrengo bizpahiru urteetan ez naiz berriz aurkezten, eta berez, ez neukan Mutrikun parte hartzeko asmorik, 2009an lehenengo saria eman zidatelako. Baina urte hasieran aita hil zitzaidan, eta hari omenaldi txiki bat egiteko animatu nintzen berriz parte hartzera. Oso berezia izan zen. Aita orduak eta orduak egoten zen portuan bere batelari begira, eta txoko hartan eseri nintzen koadroa marrazteko. Aita oso gertu sentitzen nuen, eta koadro oso polita irten zitzaidan. Bigarren saria eman zidaten, eta oso pozik geratu nintzen.

**Aitaren heriotzak izan du eraginik 2010eko koadroetan?**

Bai. Hasieran oso gogorra egin zitzaidan, eta denboraldi batez ezin izan nuen margotu. Etxekoek animatu ninduten marraztera, amak eta emazteak, bereziki. Aitari izugarri gustatzen zitzaion ni margotzen ikustea, eta beragatik bazen ere, marrazten jarraitu behar nuela esan zida-

ten. Abenduan erakusketa bat egin dut Mutrikun, eta aitari eskaini diot. **Azken urteotan margotzeko estilo berri batekin ari zara. Zergatik aldatu duzu estiloa?**

Orain dela lau urte deskubritu nuen difuminatua. Mutrikuko aire libreko lehiaketan izan zen, eta konturatu gabe irten zitzaidan. Lehen estilo errealista erabiltzen nuen, baina difuminatuaren estilo honekin oso gustura sentitzen naiz.

**Eta emaitzei begiratuta, badirudi jendeari ere gustatzen zaiola, ezta?**

Bai, hala da. Lagunek esaten didate ia konturatzen naizen zer lortu duan. Azken hiru urteetan sari asko lortu ditut, eta askotan, gainera, lehiaketak irabazi egin ditut. Sariak eskuratzea gauza bat da, baina lehenengo sariak lortzea, sekulakoa da. Gauzak ondo egiten ari naizen seinale dela diote lagunek.

**Zer egiten duzu horrenbeste koadroekin?**

Azkenaldian eskuetatik kentzen dizkidate! Lehiaketa bukatu aurretik salduta neukan koadroa Guadalajaran, eta Plentzian, bost lagun azaldu ziren nire koadroa erosteko prest. Bati saldu nion, eta beste batek koadro berdina egiteko eskatu zidan. Izugarri kostatu zitzaidan. Koadro originala egin eta gero kopia egitea oso zaila da.

**2011rako zein da zure helburua?**

Bide beretik segitzea da nire asmoa. Guadalajaran eta Burgosen ibili izan naiz lehen ere, eta, gustatuko litzaidake leku berriak ezagutzea.

## San Anton, isilean pasatzen den jai eguna

**S**an Anton Eguna izan zen astelehenean, eta urtero bezala, isilik esnatu zen eguna. Komertzioak itxita zeuden, eta kalean ez zebilen jende askorik. Merkealdira joateko egun aproposa izaten da, eta elgoibartar askok seguru horretarako aprobetxatu zutela eguna. Dena den, San Anton Egunaren harira, ekitaldi asko izan dira asteburuan: Kirol ikuskizunak, antzerkia, zigilu erakusketa eta kontzertuak izan dira, besteak beste. Hona hemen argazki batzuk. Bideoa eta argazki gehiago ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)



Fernando Ansola futbolaria eta Juan Mari Andonegi omendu zituzten zapatuan filatelia erakusketaren inaugurazioan. Haien alargunek jaso zuten Altzolatarren Dorretxea elkartearen oroigarria.



Euskadiko motoziklismo sariak banatu zituzten Herriko Antzokian, eta ondoren trial erakustaldia egin zuten Madalan. Jendetza handia batu zen parkean.



Jose Antonio Osoro 'Katxok' Udal Musika Banda zuzentzeari laga zion domekan, 27 urteren ondoren. 1984ko Errege Egunean egin zuen debuta Katxok bandako zuzendari lanean, eta orduan zuzendu zuen lehenengo piezarekin agurtu zen domekan. Omenaldi hunkigarria egin zioten bandako kideek, eta berak bertso bat kantatu zuen, eskerrak emateko. Txomin Mujika izango da aurrerantzean bandako zuzendaria, eta domekako kontzertuan zuzendu zuen estreinako pieza "Aupa Katxo" izan zen, orain dela 21 urte Txominek berak konposatutako kanta, alegia.



Astelehenean, San Anton Egunean, Big Band taldeak kontzertua eskaini zuen Herriko Antzokian. Iban Guinea gaztearen zuzendaritzapean, jazz estiloko hainbat pieza eskaini zituzten.



# Korrikaren barruan Euskalklip bideo lehiaketa antolatu dute

Apirilaren 7an hasiko da Korrika Trebiñon, eta 17an amaituko da, Donostian

**K**orrika Kulturalaren barruan bideo lehiaketa jarri dute martxan Korrikaren antolatzaileek. Bideo klip formatuan grabatu behar dira bideoak, eta gutxienez behin erabili beharko da Korrika 17ren amaia: *Maitatu, ikasi, ari... euskalakari*. Bideoak gehienez hiru minutuko iraupena izan beharko du. Bozketa Internet bidez egingo dute Korrikaren webgunean, eta irabazleak Mac gailu bat jasoko du. Lehiaketari buruzko informazioa eskuratzeko, 607 601 423 telefono zenbakira deitu daiteke, *elgoibar@aek.org* helbide elektronikora idatzi edo Plaza Txikiko AEK euskaltegira joan daiteke.

2011ko apirilaren 7an hasiko da, Trebiñon euskararen aldeko lasterketa erraldoia, eta 11 eguneguz gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du, apirilaren 17an Donostiara helduko den arte. Guztira, bi mila kilometro baino gehiago egingo ditu Korrikak.



## Giranice taldeak kontzertua eskainiko du gaur Kultur Etxeko sotoan

Orioko Giranice taldeak kontzertua emango du gaur gauean Kultur Etxeko sotoan. Proiektu berriarekin etorriko dira Orioko mutilak Elgoibarrera. Eremu oso ezberdinetan ibilitako musikariak bildu dira, eta kide batzuk lehen ere Saudade taldean elkarrekin ibilitakoak dira. Kanta berean eritmo eta matiz aldaketa bortitz zein leunak uztartzen dituzte, melodia nagusi batek gidaturik. Iturri oso desberdinetatik edaten dute, eta musika instrumentalista egiten dute. Horretarako, rock estiloko gitarren gaintik bibolin batek gidatuko du kantaren ildoak. Joseba Britek zuzentzen du taldea, eta mezu bat transmititzearan ordez, egoera bat islatu nahi dute.



## Leku Ona tabernaren 20. urtemuga ospatu zuten Mendaron



Leku Ona tabernaren 20. urterena ospatzeko, bertso bazkaria antolatu zuten joan zen zapatuan Mendaron. Andoni Egaña eta Uxue Alberdik jardun zuten bertsoan; librea lehenengo, eta Aitzol Urain mendarorarrak jarritako gaietan erantzunez gero, eta Janire Elordi eta Xabi Etxanizek girotu zuten eguna. Bazkaritan, 80 lagun baino gehiago elkartu ziren. Bazkaltzeko izena eman zutenek lore sorta bat eskaini zieten tabernariei, eta Jokin Urain presoaren lagunek kriseilu bat oparitu zieten. Ondoren, Leku Ona tabernakoek otar bat zozketatu zuten, bezeroekiko esker onez, eta Alain Ulaziak jaso zuen saria. Saridunak, beste bi lagunekin batera, bi bertso kantatu zituen jabeen omenez, eta txaloka erantzuten zuten entzuleek.

## Sanloko zortzi jokalarik Espainiako eskubaloi txapelketa jokatu dute Euskadiko selekzioarekin

Lorea Gabilondo eta Igor Lizarralde Euskadiko entrenatzaile lanetan aritu dira

Jubenil, kadete eta infantil mailako zortzi jokalarik elgoibartarrek Espainiako eskubaloi txapelketa jokatu dute, Euskadiko selekzioarekin. Maite Bollar, Ane Urain eta Ainhitze Etxeberria (jubenilak), Garazi Osoro eta Zuriñe Konde (kadeteak), Maddi Mendibil eta Nora Kortaberria eta Koldo Errasti (infantilak). Infantil eta kadete mailakoek Caceresen jokatu dute, eta jubenilek, berriz, Leonen.



Garazi Osoro eta Zuriñe Konde, kadeteak.



Koldo Errasti, infantil mailako jokalaria.

Maila handiko txapelketa izan da, eta Euskadiko selekzioek emaitza onak lortu dituzte. Kadete neskek laugarren postuan sailkatu dira; jubenilak zazpigarrenean; infantil neskek hamargarrenean, eta mutilak zortzigarrenean.

Bestalde, Lorea Gabilondo eta Igor Lizarralde estreinakoz aritu dira Euskadiko entrenatzaile lanetan infantil mailako nesken taldearekin.

## Mendia eta sagardotegia uztartzeko irteera antolatu du Morkaikok

Morkaiko mendizale elkarteak mendia eta sagardotegia uztartzeko irteera antolatu du otsailaren 12rako. Lehenengo, Andoain eta Urnieta artean dagoen Adarra (811 metro) mendira igoko dira. Mendi bueltaren ostean, Astigarragako Rezola sagardotegira joango dira bazkaltzera. Izena emateko epea zabalik dago, eta dagoeneko autobus bat bete dute. Morkaikoko zuzendariak bigarren autobus bat jartzea erabaki du, eta interesatuek otsailaren 3ra arteko epea dute izena emateko. Astelehen eta ostegunetan zabaltzen dute Errosario kaleko egoitza, 19:00etatik 20:30era. 26 urtetik beherako bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerako bazkideek 40 euro. Bazkide ez direnek, berriz, 45 euro.

## Elgoibarko xake taldeak galdu egin du Gipuzkoako txapelketako lehen saioan



Elgoibarko xake taldeak ez du ondo hasi Gipuzkoako txapelketa, eta lehenengo jardunaldian galdu egin zuen Tolosako taldearen kontra, 1,5 eta 2,5 emaitzarekin. Talde bakoitzeko lau jokalarik jokatzen dute astero, eta hauek izan dira emaitzak:

- Juan Manuel Navarro: 0-1 (galdu)
- Mikel Fidalgo: 1/2 - 1/2 (berdindu)
- Tomás Conde: 1-0 (irabazi)
- David Garcia: 0-1 (galdu)

Elgoibarko xake taldeak izen berria dauka aurren, Mekatar, eta iaz bezala, bigarren mailan lehia-tuko da.

# Arribillagak eta Loiolak San Anton pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte

Iazko berberak jokatuko dute nagusien finala



Ezkerreko argazkian, Eneko Loiola. Eskuman, Haritz Arribillaga pilotari emateko unean.

**H**aritz Arribillagak eta Eneko Loiolak San Anton pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur gauean, batak promesetan eta besteak nagusietan. Iaz ere, bi elgoibartarrak iritsi ziren finalera, baina ez batak eta ez besteak ez zuten lortu txapela janzterik.

Nagusietan, iazko final berbera errepikatuko da: hau da, Uriarte eta Loiola, Atxotegi eta Jauregiren kontra. Iaz Soralezeko bikotea nagusitu zen (22-12), eta San Migelgo atzelariak laugarren aldiz galdu zuen San Anton txapelketako finala. Aurten Loiolaren bosgarren finala izango da, eta beraz, garaipena lortzeko ahalegin guztiak egingo ditu.

Promesetan, bestalde, Arribillaga-Murgiondo bikoteak 22-20 irabazi zion joan zen astean Arrieta-Aizpuru bikoteari, eta gaur gaueko finalean, Muguruza eta Rezusta izango dituzte aurrez aurre. Partidak gaueko 22:00etan hasiko dira, Ikastolako frontoian.

## Spinning gela berria eraikiko dute Mintxetan



Udaberri alderako spinning gela berria egingo dute Mintxetan. Padel pista eta futbol zelaiak harmailen arteko tartean egingo dute gela berria. 110 metro koadro izango ditu, eta 50 bizikleta inguru jarriko dituzte erabiltzaileen eskura. 2001ean hasi zen spinning-aren gorakada Elgoibarren, eta Kirol Patronatuko eskaintzaren barruan arrakasta handia dauka. Une honetan 175 lagun daude izena emanda, hamabost taldetan, eta spinning gela bakarra dago. Udalak Mintxetako kirol gunea indartu nahi du, eta gela berri honekin erabiltzaileei zerbitzu hobea eman nahi die.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 0 – Zamudio 0 (3. maila)  
Amaiak Bat 0 – Elgoibar 2 (Pref.)  
Elgoibar 0 – Burumendi 1 (Ohorezko jub.)  
Sanse 1 – Elgoibar 1 (Kad. A)  
Urki 1 – Elgoibar 1 (Kad. B)  
Aloña Mendi 1 – Elgoibar 2 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 4 – Arrasate 0 (Inf. Txiki)  
Aretxabaleta 3 – Elgoibar 5 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

#### San Anton txapelketa

Arribillaga-Murgiondo 22 / Arrieta-Aizpuru 20 (Pro.)  
Andreu-Aldape 12 / Uriarte-Loiola 22 (Nag.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch Elg. 4 – Egintza 0 (1. maila)  
Gamon 3 – King-Kong 7 (Jub.)

### ESKUBALOA

Tolosa 30 – Alkorta Elg. 38 (Sen. mut)  
Leizaran 25 – Beristain Elg 24 (Jub. mut.)  
IMH 35 – Urrietako 23 (Kad. neska.)  
Arrate 28 – Txariduna Elg. 35 (Kad. mut.)  
Aterpe Elg. 16 – Amenabar 19 (Inf. mut.)  
Aloña Mendi 21 – Ikus Elg. 24 (Inf. neska.)  
Bankoa Elg. 40 – Soraluze 15 (Inf. mut.)  
Aiala Zarautz 25 – Tecnifuelle Elg. 22 (Sen. neska.)  
Aiala Zarautz 31 – Grupo Eibar Elg. 34 (Jub. neska.)  
Aiala Zarautz 27 – Lauko Elg. 24 (Kad. neska.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 22  
10:00 Elgoibar – Tolosa (Ohorezko inf.)  
11:45 Elgoibar – Lengokoak (Kad. A)  
16:30 Haundi – Zarautz (3. maila)  
18:45 Elgoibar – Mondragon (Erreg. pref.)  
Domeka, 23  
16:00 Elgoibar – Zumaia (Aleb.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 22  
10:15 Ikus Elg. – Aiala Zarautz (Inf. neska.)  
11:30 Tecnifuelle Elg. – Askartza (Sen. neska.)  
19:30 Alkorta Elg. – Egia (Sen. mut.)  
Domeka, 23  
10:45 Lauko Elg. – Usurbil (Kad. neska.)  
12:15 Grupo Eibar Elg. – Usurbil (Jub. neska.)

### ESKU PILOTA

#### Barbakua, 21

22:00 Arribillaga-Murgiondo / Muguruza-Rezusta (Pro.)  
22:45 Atxotegi-Jauregi / Uriarte-Loiola (Nag.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Nikaraguako bikoteak nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia eta erreferentzia oso onak. ☎ **618 089 227**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Esperientziaduna, eta erreferentzia onekin. ☎ **639 783 593**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **626 490 986**
- Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Neska gaztea garbiketa lanak egiteko prest. Egunean pare bat orduz. ☎ **697 735 046**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Egun erdiz. ☎ **638 031 555**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **681 178 842**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **608 376 387**
- Mutila edozein lan egiteko prest, edozein ordutan. ☎ **649 086 057**
- Emakumea edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... Esperientziaduna. ☎ **678 972 690 / 943 530 795**
- Emakumea edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... ☎ **695 182 457**
- Neska euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. Klinika laguntzaile titularekin. ☎ **646 384 681 / 943 748 209**
- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. Esperientzia handia. ☎ **943 744 433**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Edozein ordu edo egunetan. ☎ **606 226 827**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **646 464 300**

- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **637 966 749**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **609 484 891**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo externa. ☎ **608 820 954**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **626 490 986**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Arratsalde, edo asteburuetan ere bai. ☎ **646 821 678**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Pisua hartuko nuke alokairuan, ahal dela hiru logelatakoa. ☎ **652 446 228**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **685 212 060**
- Etxe apaina alokagai Elgoibarren, erdigunean. Logela bakarra, egongela, terraza txikia. ☎ **660 042 159**
- Logela bat hartuko nuke alokairuan. Arduratsua naiz, eta lanean dihardut. ☎ **636 036 656**
- Mutila alokairuzko etxe baten bila dabil. ☎ **943 031 317**
- Etxea salgai. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua eta egoera oso onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Bi logela alokatzen dira, mutilentzat. Arropa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**
- Etxebizitza alokatzen da Mendaron, Azpilgoeta auzoan. ☎ **685 772 494**

**AUTOAK ETA GARAJEAK**

- 20 tonako Escania kamioia salgai. Lana dauka. Gaitasun profesionala behar da. ☎ **685 724 273**
- Garaje itxia alokatzen dut Madalan. ☎ **695 784 765**

- Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan, udaletxetik gertu. ☎ **672 422 237**
- Garajea alokatzen dut Santa Ana 49an. ☎ **660 841 767**

**PARTIKULARRAK**


- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**

**LOKALAK**

- Lokala salgai Santa Klaran. Solairu arteko baxua. Araudia betetzen du. Elkarte gastronomiko edo etxea egiteko aproposa. ☎ **943 744 467 / 607 741 238**

**BESTELAKOAK**

- Katua galdu da Basarten. Urtarrilaren 6an etxetik ihes egin zuen katu siamesak. Arra da, eta ez du lepokorik. Norbaitek ikusi edo etxean hartu badu, deitu dezala, mesedez. ☎ **679 276 164**



- Inork betaurreko batzuk aurkitu baditu, deitu dezala mesedez. ☎ **943 740 268**
- Belarritakoa galdu dut. Perla zuri bat dauka. Balio handia dauka niretzat. ☎ **943 743 140**
- Tekel arrazako txakur emea salgai. 18 hilabetekoa, esanekoa eta maitakorra da. ☎ **677 097 015 (Karmen)**
- NANA eta Osasun Txartela galdu nituen orain dela hiru bat aste. ☎ **943 740 365 (Begofia)**

**Haurreskolak**

www.haurreskolak.net

**Matrikulazio epea zabalik**

**Urtarrilaren 17tik 28ra**

**Elgoibarko Haurreskola**

**943 742 141**



• Zorionak, **Mikel**, domekan 8 urte egingo dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Anderren partez.




• Zorionak, **Markel**, aita, ama, lehengusu eta familiako guztien partez. Ondo pasa Mintxetan lagunekin. Muxuak.



• **Nahia**, ongi-etorri gurre artera. Kiko eta Nerea.



• Zorionak, **Ane**, urtarilaren 28an 11 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta lagun guztien partez.



• Zorionak, **Urko**, urtarilaren 27an 10 urte egingo dituzulako. Zurre arreba Izaro, guraso eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Elur eta Uxue**, etxeko bi txiki eta bihurrienei. Familiakoan, eta bereziki, anai-arreba, lehengusu eta amona Ankoraren partez.



• Zorionak, **Estanis**, Zure tanborren soinuarekin 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak **Miren!** Zure 4. urtebetetzean senitarteko guztien partez: ondo-ondo igaro eguna!

**Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## MERKATU TXIKIKO OHARRA

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

**Prezioak:**

**Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)**

**Autoak saltzea: 12 euro.**

**Bestelakoak: 6 euro**

Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

**Lanbroa**

**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

**Idama**

Abenduko irabazlea:  
**JAVI TORQUEMADA**

Urtarrileko saria:  
**KOLOREA,  
MOZKETA ETA  
ORRAZKERA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

## 21 barixakua

### Kirolak

22:00 San Anton pilota txapelketako finala Ikastolako frontoian.

### Musika

22:00 Giranice taldearen kontzertua Kultur Etxeko sotoan.

## 22 zapatua

### Ate irekiak

11:00 IMHko ingeniariatza eskolako ate irekiak IMHn.

## San Bizente Eguna

11:00 Meza San Rokeko ermitan.  
Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte  
20:30 Afarria San Rokeko elkartean.

### Autobusa

15:45 Gemikako akordioak Iruñearako deitutako manifestaziorako autobusa Kursaalera ekitaldia bertan behera geratu da, eta horren ordez, manifestaziora deitu dute, Espainiako Gobernuaren jokabidea salatzen. Autobuserako izen-ematea, ohiko lekuetan: Lanbroa, Jai-Alai eta Iturri tabernetan.

## Kirola

19:00 Mugertza Kroseko korrikalariei ongi-etorria Udaletxeko pleno aretoan.

## 23 domeka

### Kirola

10:00 Mugertza Krosa Mintxetan.

## 24 astelehena

### Tailerra

17:00 Arte tailerra Los sumerios y las estrellas artelana. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 25 martitzena

### Tailerra

18:00 Literatura tailerra Udal Liburutegian.



Betiko ordutegira bueltatu gara:  
**Astelehenetik ostiralera 16:30etik 19:30era. HH5 LH6 bitarteko haur guztientzat bazkide izateko 2. epea zabalik.** Informazio gehiago ludoan

**Piropo lehiaketa**  
Ekarki gaztekerura edo bidali gure Tuentira zuk asmatutako losintxa, hitz ederrak edo loreak SMS formatuan.  
Epea: otsailak 6  
Informazio gehiago Tuentin edo Gaztekeruan





**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 749 570

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak ezarria  
Laketak eguzi alorreko, PVC  
Pintura orokorra

**GRUPO**  


### OKINDEGIA

23 domeka EIZAGIRRE

### FARMAZIAK (24 orduz)

- 21 Ibañez
- 22 Garitaonandia-Bidasolo
- 23 Etxeberria (Santa Ana)
- 24 Etxeberria (Errosario)
- 25 Etxeberria (Errosario)
- 26 Yudego
- 27 Zabaleta
- 28 Etxeberria (Errosario)

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

## ZINEA

### «Iribarren paradisoa»

21, barixakua: 22:15  
(Dokumentala)

### «Neds»

22, zapatua: 19:00/22:15  
23, domeka: 19:00  
24, astelehena: 21:30

### «Midas erregearen altxorra»

23, domeka: 16:30



«Neds» Zuzendaria: Peter Mullan.  
Aktoreak: Conor McCarron, Gregg Forrest, Joe Szula, Peter Mullan, Mhairi Anderson, Gary Milligan. Herrialdea: Britainia Handia.  
Urtea: 2010. Iraupena: 124 minutu.

Azken Donostiako Zinemaldiko irabazle garbia izan zen film britainiarra; Urrezko Maskorraz gain, Conor McCarron gazteak aktore onenaren saria irabazi zuen. Zuzendari lanetan Peter Mullan aktoreak egin duen laugarren film luzea da Neds,

70eko hamarkadako Glasgown giroitutako drama sozial gordina. Urte horietan ez zen giro Eskoziako hirian, gazteen arteko liskarrak eta borrokak eguneroko ogia ziren. Testuinguru horretan, John McGill bide zuzenetik joaten ahaleginduko da; eskolan ikasle saiaturia da eta hortik kanpo arazotan ez sartzeko asmo sendoa du. Baina azkenean, inguruko bortizkeria bera baino indartsuagoa izango da, eta McGill best muturrera egin eta hiriko alderdirik basatia ezagutuko du.

# Xarma, Danbaka IV. lehiaketako irabazlea

Xarma Ondarruko taldeak jaso du Danbaka lehiaketako talde onenaren saria. Abesti landua eta indartsua sortu eta punta-puntako zuzeneko eskaintzeagatik nabarmendu du epaimahaiak. Gainerako taldeak ere, fin ibili dira, baina, eta nork bere onena eman du. Despreziokoak txukun aritu dira, eta asko zaindu dituzte detaileak, eta Lord Witchekoen ikuskizuna ere gogoangarria izan da; ziurrenik Lord Witchekoena izan da Danbakako ikuskizunik onena. Hiru taldeak bikian aritu dira, giro bikaina sortu dute, baina bakarrak irabazi du: Xarmak.

Talde irabazlea: Xarma (Diskoa grabatuko dute)

\*Debagoieneko talderik onena: Lord Witch (bideoklipa grabatuko dute)

## Xarma

Gogor ekin zion Xarmak kontzertuari, gogotsu. Hasiera-hasieratik konbentzitu zuten ondarrutarrek: bizi eta indartsu jardun zuten, eta erritmo erakargarri esker erraz eurenganatu zituzten entzuleak. Gustura aritu ziren, eta ikusleek ere gogotik gozatu zuten. Agertokia bete egin zuten. Baxu joleak itzel jo zuen, eta oso fin ibili zen talde osoa. Abesti oso landuak dituzte, indar handikoak, eta biezagarri horiekin nekez egin daiteke huts. Oholtzan eroso jardun zuten, eta giro ederra sortzen jakin zuten. Aurreko saioko arazo teknikorik ere ez dute izan, eta esperotako maila eman zuten.



## Lord Witch

Sekulako harrera beroa egin zieten zale eta lagunek Lord Witchekoei. Taldea ere bere onena emateko gertu etorri zen, irabazteko gogoz. Txalo eta oi-huekin hartu zituzten ikusleek, eta bikain erantzun zieten Lord Witchekoek, sekulako kontzertua emanda. Arlo teknikoari dagokionean, ez dago gauza askorik esateko, guztiz kontrolpean duten zerbait delako. Metal festa itzela eskaini zuten, eta oholtzara azkenak igo baziren ere, inor ez zuten oharkabea utzi. Ereserki gisa planteatzen dituzte abestiak eta baita bizi ere. Bikainak hasieratik amaierara arte; kontzertu ahaztezina.



## Desprezio

Epaimahaiak Despreziokoaren freskotasuna nabarmendu bazuen ere, garbi dago final batean zaila dela atariko kontzertuetan bezain lasai jardutea. Oraingoan baliteke apur bat uzkur samar hasi izana, baina minutu gutxian berotu ziren. Oro har, hala ere, giro bikaina sortu zen bai oholza gainean zein aurrean, eta txukun aritu ziren Despreziokoak. Hiru akorde eta jarrera; horixe izan da euren premisa, finalerako bidea ireki dien premisa, eta finalean ere baleko saioa egitea ahalbidetu ziena. Baliteke oraingoan "sosotxoago" jardun izana, baina kontrastu badiirudi ere, gogotsuago aritu ziren, arreta handiagoarekin jotzen, kontzentratuago.



BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDARIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com





# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda. Naturopata,  
Iridiologoa eta Homeopata.*

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, P.N.L, jarnari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta.

San Bartolome, 29

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## *Sanatana Dharma Yoga Elkarte*

Anginei aurre egiteko masajea.

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (ldoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

*Mendaro:* Astelehen eta asteazkenetan:

15-16:30

## *Pakene Ongizate Integraleko zentru berria*

(Azterketa biologikoa eta osteopatia, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanezintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

## MASAJISTAK

### *Victoria Iraegi*

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranzatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera:

8:00 / 14:00

## PODOLOGOAK

### *Oinberri*

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

### *Iñigo Arrillaga Yudego*

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriren egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Orduetgia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

## FISIOTERAPIA

### *Ainhoa Fisioterapia*

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

### *Andoni Schmidt Larrañaga*

#### *Etxerako Fisioterapia*

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

San Roke 8, behe - Tel.: 689 926 016

Kontsulta ere badaukagu.

## ORTOPEDIKAK

### *Itziar Sarasketa*

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

## OPTIKAK

### *Ikus optiko-optometrista*

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

### *Uzuri*

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

## HORTZ KLINIKAK

### *Irale*

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com) - [www.irale.com](http://www.irale.com)

### *Leku eder*

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - [lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### *Betia Arriola*

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869

